

Eskerrak

eta beste batzuk

Eskerrak fundamentuz eman behar dira. Maketazio kontuek derrigortuta -estetikaren menpe bizi garatuatsapeko estiloa erabili dut sarre-ra mehe hartan baina hona hemen lekutxo bat okerrak zuzentzeko. Oraingoan anaia Ibonekin hasiko naiz, bera baita azken urteetan euskarazko testuak zuzentzen dizkidana; merituak, baleude, bereak dira, hutsak nireak. Zuzentzea, etsairik handienak ere merezi ez duen zigorra da.

Pazientziadunak dira hurrengoak zerrendan, eta nortzuk dira horiek? Etxekoak batik bat, ordenadoreari itsatsita jasan nautenak; Jon Josu Uribarrenek ere frantzizkotarren pazientzia erakutsi du, eta erlijio ordenekin jarraituz Maite Garamendi eta Iñaki Goigona karmeldarrak lirateke, on hutsak!

Agente sekretuak dira hurrengoak. Onenatan onena Isaias Gezuraga, nekazina, norbera baino ekinagoa. Hainbat material lortu dizkit, batez ere Garavillatarrekin erlazionatua. Agente gehiago erabili ditut Erkiagatar, Jauregitar edo Garciatarren kontuak argitze-ko, horiei ere eskerrak eman behar dizkiet. Agente artistikoa ere badaukat, kobratzen ez duen bat, hemen inork ez baitu kobratzen, a zer mauka! *Markus, txiste bat bihar dot, arratsaldeko hiruretan. Egun bereko arratsaldeko bostetan!, nun itxi bihar dot txistia amaittu dot-eta.*

Zelan ez, materiala utzi didatenak ere eskertu behar ditut: Koldo Leniz, Juan Manu Ugartetxea, Jose María Arriola, Lola Larrababal, Ramón Pineda, Andrés Algorta, María Luisa Ceniga, Jose Luis de la Torre, Kiñuka... Guri liburua hobetzeko balio izan digu material horrek eta zuoi orain arte ikusi ez dituzuen argazkiez disfrutatzen. Etxean gorde-tako argazki pribatuak utzi dizkigute, "Nire altxooorra" sindromea gaingiduz. Badaukagu zerikasia horiengandik.

Bigarren liburuki honetako nobedadea audioa dela aurreratu digu. Zeregin horretan ibili dira Lekeitioko musika banda eta Estudiantina. Eskerrik beroenak partaide guztiei, batez ere Urtzi Iriondo zuzendariari.

Amaitzeko, Lekeitioko udala, bera baita liburu hau ordainduko duena. Konfidantza eta babesa eskertzen dizkiet, ea datozen garai latzotan ondarearen zaintzaren apustuarekin jarraitzeko gai diren.

Eskerrak eta gero azalpenak eta justifikazioak -akaso, aitzakiak- datoz.

Liburu hau egiteko erabili dudak materialak emaitza baldintzatzen du ezinbestean, horregatik historia zati eder bat ezkutuan geratuko da. Beti gizonezkoak protagonista izan beharra ere, beti aberatsak, beti azainak... Bestelako historia ere egin behar dela ikusi, ikusten dut -eta dugu- baina erabiltzen ditugun iturriek ez digute laguntzen. Egunkarrietan eta liburuetan umilek eta emakumeek -senarra aberatsa izan ezean- ez zuten lekurik. Alargundu egin behar zen emakumea protagonismo apur bat lortzeko, aberastu umila anonimotasuna galtzeko. Tira, nik egindakoa hobetuko dutenak etorriko dira.

Transkripzioei dagokienez aurreko liburukian aukeratutako printzipioak erabiliko ditut, lekeitiar eskolakoak. Hurrengo batean, baliteke nire lagun Iñakiren gomendio zuhurrei jarraituta, tilde ditzosoak -kentzen ipintzen baino lan gehiago ematen duten horiek- gaur egungo erara jartzea. Groucho Marxi egotzitako esaldiak dioen moduan: *Horiek dira nire printzipioak eta ez bazaizkizu gustatzen beste batzuk ditut.*

Espartarra bazen sarrera beste azalpen hau ateniarra bihurtzen ari da. Banoa, jarraitu liburuarekin oraindik ezagutzen ez dituzun hainbat kontu daukazu zain eta.

Eskerrak
eta beste batzuk

WE NEED YOU! kurik@kurik.eus

